Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Elias Euba Irakulis

Amorebieta-Etxano, Bizkaia (1920)



Aurkibidea

Biografia



San Antonio auzoko Kurutzeta etxean jaio eta bizitakoa. Aita bertakoa zuen, arotza, eta ama Ibarra baserrikoa, sagardotegia dagoen etxekoa. 12 neba-arrebako familian zortzigarrena izan zen, eta horien artean bi fraide eta bi moja egon ziren. Beraien etxeko beheko partean taberna izan zuten. Sei urterekin, San Migelgo eskolara joan zen eta urte betera amaren jaiotetxera joan zenez, Montorrako eskolara joan zen 12 urtera arte. Gerra garaian, etxeko bakarra izan zen alde egiten, Lezamara eta Artzentalesera joan zen ebakuatuta. 18 urterekin, Espainiako Gerra Zibila bukatzeko zegoela, soldadu joan zen Lizarrara (Nafarroa), eta gerratea bukatu ostean, Bartzelonara eta Tarragonara joan zen. Lau urteren ostean, beste bi urtez Sukarrietan, Kanala eta Arketa (Ibarrangelu) inguruan egon zen destinatuta. Oso ondo gogoratzen ditu gerrako kontuak. AMO-014 grabaketan bere emaztea ere azaltzen da tarteka. Gainerako grabaketak bere emazteakin batera egin zitzaizkion.

Zintak

AMO-014

- **Proiektua**: Zornotzako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-03-09
- **Iraupena**: 35 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

AMO-015

- **Proiektua**: Zornotzako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea

- **Data**: 2011-03-09
- **Iraupena**: 65 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

AMO-021

- **Proiektua**: Zornotzako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-03-11
- **Iraupena**: 67 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider

AMO-022

- **Proiektua**: Zornotzako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-03-11
- **Iraupena**: 68 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxazarra, Ainhoa

AMO-023

- **Proiektua**: Zornotzako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-03-11
- **Iraupena**: 21 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

AMO-041

- **Proiektua**: Zornotzako toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Iruarrizaga, Rakel - Olabarri, Ane
- **Data**: 2008-02-15
- **Iraupena**: 27 min
- **Euskarria**: Audio digitala
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea**: Olabarri, Ane

Pasarteak

1. Anaien fraide ibilerak

- **Erref**: AMO-014/002
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:02:05. **Bukatu**: 00:04:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:
Fraide joatekotan egon zen. Zortzi urtetik hamazortzira amaren jaiotetxean egon zen. Anaiak gomendatu zion handik irtetzeko, behiak zaintzen besterik ez zuela jakingo bestela. Anaien fraide ibilerak. Aita Santuak zoriondu egin zituen pertsonalki.

2. Soldadu joan behar

- **Erref**: AMO-014/003
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:04:41. **Bukatu**: 00:06:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Anaiak fraide izateko ikasketak egiten ari zirenez, ez zuten soldadutzara joan beharrik izan. Berak soldadu joan behar izan zuen. Bi arreba moja izan zituen.

3. Gerrako lehen egunak

- **Erref**: AMO-014/005
- **Iraupena**: 0:03:16. **Hasi**: 00:09:08. **Bukatu**: 00:12:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:
Gerrak irten zuenean, Zornotzan jaiak ziren. Lehenengo aldiz neska batekin dantza egin zuen. Hala zeudela, milizianoak fusilekin iritsi ziren kamioeitan eta dantzaldia bukatu behar izan zuten. Bonbardaketak gertatu zirenean, Lezamara joan zen ganaduak hartuta. Handik Argentalesera joan zen eta nazionalak sartu zirenez, etxera bueltatu zen. Zornotza guztia erreta topatu zuen.

4. Lizarran soldadu; bizipen gogorrak

- **Erref**: AMO-014/006
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:12:24. **Bukatu**: 00:15:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Hemezortzi urterekin Lizarrara eraman zuten soldadu. Hango bizipen gogorrak kontatzen ditu.

5. Francoren gerrako azken partea

- **Erref**: AMO-014/007
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:15:44. **Bukatu**: 00:18:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Lizarratik Lleidara joan zen frentera. Zorriek janda egon ziren. Bartzelonan entzun zuen Francoren gerrako azken partea. Orduan pentsatu zuten etxera joango zirela baina han zaindari lanetan jardun behar izan zuten.

6. Iheslariak harrapatzen

- **Erref**: AMO-014/008
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:18:17. **Bukatu**: 00:21:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Seu d'Urgellen (Katalunia) ihes egiten zuten presoak harrapatzen aritu behar izan zuen, negu betean. Gabon gauean Andorran dantzan ibili zirenekoa kontatzen du.

7. Presoak sendatu eta gero fusilatu

- **Erref**: AMO-014/009
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:21:12. **Bukatu**: 00:22:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Reusen (Katalunia) egon zen gero. Presoak ospitalean izaten zituzten zauriak sendatzen, gero fusilatzeko.

8. Iheslari bat hil zutenekoa

- **Erref**: AMO-014/010
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:22:24. **Bukatu**: 00:24:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Andorrarekin mugan zeudela, hango nekazari batek jakinarazi zien euren etxeko sabaian gizonezko bat zegoela. Hiru boluntario joan eta han bertan hil zuten.

9. Laidako kanpalekuan, tanke eta guzti

- **Erref**: AMO-014/014
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:28:17. **Bukatu**: 00:30:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:
Pedernalesen zegoela, etxera sarri joaten zen. Laidako kanpina dagoen lekuan egon ziren kanpatuta, tanke eta guzti. Sei urte egin zituen soldadu.

10. Gosearen ondorioz, hesteak izorratu

- **Erref**: AMO-014/016
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:32:32. **Bukatu**: 00:35:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:
"Zorri berdea" izeneko gaitza zabaldu zen Reusen (Katalunia) zegoela. Gosearengatik ur gordinak jan zituen; hesteak izorratu zitzaizkion.

11. Etxea, taberna eta ostatu harginentzat

- **Erref**: AMO-015/003
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:06:55. **Bukatu**: 00:09:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Aitak egin zuen etxean hazi eta bizi izan da Elias. Harginen lantegiak zeuden etxe inguruan. Aitak taberna eta ostatua ipini zituen eta ondo joan zen, baina gero hil egin zen. Dantzaldia ermita aurrean egiten zen, baina euria bazen, beraien etxean.

12. Harriak, Derioko panteoiak egiteko

- **Erref**: AMO-015/004
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:09:20. **Bukatu**: 00:10:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:
Harriak Deriora eramaten zituzten, idiekin eta gurdiekin, han panteoiak egiteko. Zementoa agertu zenean, harginak lanik gabe geratu ziren.

13. Hildakoak mendian

- **Erref**: AMO-015/008
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:20:33. **Bukatu**: 00:23:48

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:
Elias ebakuatuta etxeratu zenean, mendian gizon bi topatu zituen hilda. Hiru fusil Belatxikietan gorde zituzten eta erabiltzen ikasi zuten. Ez zien dokumentaziorik begiratu eta damutu zaio harrezkero. Gerran hildakoak aipatzen dituzte.

14. Anaien kontra jarduteko beldurrez

- **Erref**: AMO-015/009
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:23:48. **Bukatu**: 00:26:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Bere anai fraideak jakinean egoten ziren etxe inguruan zer gertatzen ari zen. Ez zuten soldadu joan nahi izan, beren anaien kontra jardun beharko zuten beldurrez.

15. Osaba fraidea fusilatu egin zuten

- **Erref**: AMO-015/010
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:26:07. **Bukatu**: 00:27:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Bere aitaren anai bat, fraidea, hil egin zuten milizianoek; bera eta komentuko fraide guztiak. Errusiarrak omen ziren miliziano haiek.

16. Gerra hasi eta alde egin behar

- **Erref**: AMO-015/011
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:27:18. **Bukatu**: 00:29:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Gerra hasi zenean, hamabost urte zituen Eliasek. Lehenengo aldiz dantzan egin zuen eguna izan zen. Amamarenera joan zen. Han zegoela bonbardatu zuten Gernika, eta etxea ere mugitu egiten zen. Abereak hartu eta alde egin zuen, hala agindu ziotelako. Lezamaraino bakarrik joan zen.

17. Hildakoak kamioira botatzen

- **Erref**: AMO-015/012
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:29:14. **Bukatu**: 00:30:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Lezaman bondartatu egin zituzten. Hildakoak kamioira botatzen aritu behar izan zuen. Garaiko bizilagunak, ama-semeak eta moja, hil ziren.

18. Bigarren Errepublikaren eragina

- **Erref**: AMO-015/014
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:34:20. **Bukatu**: 00:37:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:
Errepublika garaian, erregeen argazkiak kendu zituzten eskoletatik. Hilketarik ez zen gertatu garai hartan. Kapitalistek dirua gorde eta industria gerarazi egin zuten; horrek gosea eragin zuen.

19. Eskolara Montorrara, Zornotzara klase partikularretara

- **Erref**: AMO-015/019
- **Iraupena**: 0:03:44. **Hasi**: 00:43:21. **Bukatu**: 00:47:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
Bost urte zituela hil zitzaion aita Eliasi. Ama Zornotzara joaten zen lanera eta berak arreba txikia zaintzen zuen. Ondoren, Ibarra baserrira joan zen bizitzera eta handik hasi zen Montorrako eskolara joaten. Etxeko lanak bidaltzen zizkien maistrak eta osabak ere laguntzen zion. Hamabi urterekin Zornotzako klase partikularretara joaten hasi zen, hilean pezeta bi ordainduta.

20. Soldadutzan ikasi nahi eta ezin

- **Erref**: AMO-015/021
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:49:00. **Bukatu**: 00:50:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Soldadu zegoela, teniente batek ematen zituen klaseetara joaten zen. Reusen baimena eskatu zuen lan-eskolara joateko baina ukatu egin zioten.

21. Diktadura gogorra; boluntarioak Mundu Gerrarako

- **Erref**: AMO-015/023
- **Iraupena**: 0:03:26. **Hasi**: 00:51:43. **Bukatu**: 00:55:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Alemaniarren alde edo kontra ibiliak

Laburpena:
Soldadu zeudela, zorriz beteta egoten ziren. Gutunazaletan "Arriba España" idatzi behar izaten zuten, bidal zezaten lortu nahi bazuten. Presoei gutunak pasatzeagatik, zigortu egin zuten bere soldadutzako lagun bat. "Division Azul"era joateko boluntarioak eskatu zituztenekoa kontatzen du.

22. "Division Azul"ean ibilitakoen pribilejioak

- **Erref**: AMO-015/025
- **Iraupena**: 0:04:05. **Hasi**: 00:57:32. **Bukatu**: 01:01:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Alemaniarren alde edo kontra ibiliak

Laburpena:
"Division Azul"era joan zirenei ondoren ordaindu egiten zieten eta postuak eta jabetzak eman. Desertore baten berri ematen du Eliasek.

23. Presoen zaindari ibili behar

- **Erref**: AMO-015/026
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 01:01:37. **Bukatu**: 01:05:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Soldadu zegoela, preso bat bere etxekoengana eraman eta zaintzeko ardura eman zioten eta estuasuna pasatu zuen. Ihesean zihoan preso bat harrapatu zuenekoa kontatzen du; hil zezan eskatu zion. Presoak goseak egoten zirela dio.

24. Bernagoitiko eskolako oroitzapenak

- **Erref**: AMO-021/002
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:00:24. **Bukatu**: 00:02:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Gerra ostean Bernagoitiko eskolan nola ikasten zuten azaltzen du: orduko maistra, zigorrak, instrukzioak, Cara al Sol...

25. Erdaraz ez jakitea arruntagoa zen garaia

- **Erref**: AMO-021/004
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:03:06. **Bukatu**: 00:04:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Mari Tereren etxera etortzen ziren hainbat mutil, baina ahizpak erdaraz ez zekienez, amari esaten zion haiekin hitz egiteko. Lehen jende askok ez zekien erdaraz.

26. Zornotzan euskarak izandako atzerakada

- **Erref**: AMO-021/007
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:13:38. **Bukatu**: 00:14:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Zornotzan euskara asko galdu da. Euskaraz egitea makurkeria zen lehen.

Transkripzioa
-Zer dala-ta galdu da?
-Nik ez dakit /eztait/ ba, gerra ostien “de menos” euskerie “como aldeanos”, “era cosa…”.
-Baiña hori herri askotan! Beste herrixetan ez da galdu hemen galdu dan beste.
-Hamen nik ez dakit /eztait/ ba nik e…, hamen jente zera eon da, apur bet e… –ta Durengon gitxiau Zornotzan baiño, e!– jente kategorikoagoa edo eure… inportantzidxe. Euskerieri “como bajona”, bajue topetan eben. Euskera eittie bajue.
-Baserritarra.
-Bai ordinaridxoa, ordinaridxoa. Nik ez dakit, ba, horregaittik galduko zan.
-Horixe, horixe piztu biher da /bida/. Hori, hori, hori aldendu ein biher da /bida/, ta [euskerieri indderra emon biher jako zelan-halan]. Guk [eukigu], baia bestieri…
-Bai ahalegiñek badabiz eitten, e.
-… lagundu ein biher jakie /bijakie/.
-Baia kostako da ondiño urte batzuk e, urte batzuk kostako da.

27. Ezin denek hika egin

- **Erref**: AMO-021/008
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:14:36. **Bukatu**: 00:15:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Mari Tereren etxean hika egiten zuten gurasoek, baina seme-alabei ez zieten uzten hika egiten beraien artean. Eliasek lagun artean hika egin izan du beti.

28. Bi meza emateko baimen eske

- **Erref**: AMO-021/012
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:26:10. **Bukatu**: 00:27:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Lehen apaizek ezin izaten zuten bi meza eman, eta behin auzoko denak joan ziren gotzainarengana hartarako baimena eskatzera.

29. Konfesatzean, apaizak sekretua gorde behar

- **Erref**: AMO-021/015
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:30:57. **Bukatu**: 00:32:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Lehen erlijioak garrantzi handia zeukan eguneroko bizimoduan: denek konfesatu behar izaten zuten eta apaizak sekretua gorde behar izaten zuen.

30. Predikariak Nafarroan

- **Erref**: AMO-021/020
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:37:09. **Bukatu**: 00:38:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Eliasen anaia predikaria izan zen; behin Nafarroa aldean izandako anekdota kontatzen du

31. Heriotzaren aurrean, errespetua

- **Erref**: AMO-021/027
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:49:04. **Bukatu**: 00:50:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Kanpaien bidez norbait hil zela entzuten zutenean, txapela kendu eta aitagurea errezatzeko ohitura zegoen lehen.

32. Arrosarioa errezatzean lokartu

- **Erref**: AMO-021/029
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:50:45. **Bukatu**: 00:52:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Eliasen osabak arrosarioa errezatzean lo hartu zueneko anekdota kontatzen dute.

33. Heriotzaren ondoko ohiturak

- **Erref**: AMO-021/030
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:52:28. **Bukatu**: 00:54:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Norbait hiltzen zenean, gaubeila egiten zen; orduan zer egiten zuten azaltzen dute. Hiletara etortzen zen jendeari bazkaria eman behar izaten zitzaion eta kantuan aritzen ziren.

34. Sepulturaren inguruko ohiturak

- **Erref**: AMO-021/033
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:58:59. **Bukatu**: 01:01:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Familiako norbait hiltzen zenean, meza nagusira joan behar izaten zen sepultura berean beste norbait hil arte. Sepulturaren inguruko ohiturak azaltzen dituzte.

35. Tifusa ez diagnostikatzeagatik hil zen anaia

- **Erref**: AMO-021/034
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 01:01:18. **Bukatu**: 01:02:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Eliasen bi anaia tifusak jota hil ziren, baina bat medikuen akatsagatik hil zen. Tifusa zuen jendea gauez lurperatzen zuten, inor ez zegoenean; kutsatzeko beldur handia zegoen garai hartan.

36. Haginetako minak

- **Erref**: AMO-022/001
- **Iraupena**: 0:03:44. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
Lehen medikuak egiten zuen dentista. Durangoko medikua eduki zuten eta pobreak zirela ikusten zuenei eezer gutxi kobratzen zien. Haginetako mina zutenean, farmazian botika bat erosten zuten. Behin, Eliasi anestesia barik atera zioten hagin bat, minari ezin eutsi egon zen eta.

37. Hamabi urte zituela amamaren baserrira beharrean

- **Erref**: AMO-022/003
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:05:47. **Bukatu**: 00:07:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Amamak dirua utzi zion amari eta Eliasek, hamabi urte zituela, amamaren baserrira joan behar izan beharrean. Goizean taloa eta esnea hartzen zuen, eguerdian baba eta gauean taloa eta esnea atzera. Gerraostean ama ere joan zen bertara eta bendejarekin ibiltzen zen.

38. Anaia ezagutu ez

- **Erref**: AMO-022/005
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:08:50. **Bukatu**: 00:10:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Elias San Migelgo eskolara hasi zenean ez zuen anaia ezagutzen. Anaia beste baserri batean bizi zen eta maistrak esan arte ez zuen jakin hura bere anaia zela.

39. Gabonetan "txakolin, txakolin, txakolinak oin egin"

- **Erref**: AMO-022/006
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:10:00. **Bukatu**: 00:11:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
"Txakolin, txakolin, txakolinak on egin" dantza egiteko ohitura egon zen Gabonetan. Ogi erreari ardoa eta azukrea botatzen zizkioten; 'zapoa egin' esaten zioten. Mari Tereren etxean amak panderoa jotzen zuen.

40. Etxean txakolina egiten

- **Erref**: AMO-022/011
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:16:59. **Bukatu**: 00:19:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Etxean mahatsa edukitzen zuten: zuria eta beltza txakolinerako eta dultzea saltzeko. Neguan mahastiak jorratu eta mozten zituzten eta udan sulfatoa bota. Gero, txakolina prentsarekin egiten zuten eta botiletan sartu. Garizuman ez zenez erromeriarik egiten, orduan joaten zen jendea txakolina edaten.

41. Umeak Parisetik

- **Erref**: AMO-022/014
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:20:51. **Bukatu**: 00:22:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Mari Terek umeak Parisetik datozela uste zuen. Baten, astoa astarrarengana eraman behar izan zuen. Astarra astoaren gainean ikusi zuenean, berak ez zekien hura umeak ekartzeko egiten zutenik.

42. Mozkorra San Bizenteko jaietan

- **Erref**: AMO-022/016
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:23:25. **Bukatu**: 00:25:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:
San Bizenteko jaietan ardoa edan zuten, txakolina eta ondoren kafea anisarekin. Kristoren mozkorra harrapatu zuen Eliasek eta etxeko atarian hartu zuen loak.

43. Komunioa eta konfirmazioa

- **Erref**: AMO-022/017
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:25:05. **Bukatu**: 00:27:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:
Jaunartzean Durangora joan zen Mari Tere argazkia ateratzera, Germanenera. Eliasek ez zuen argazkirik atera. Zornotzako parrokian egin zuten biek komunioa. Gero, urte batzuk pasatuta, konfirmazioa egiten zuten eta obispoa etortzen zitzaien.

44. Arropak Bilboko senideek ekarri

- **Erref**: AMO-022/018
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:27:24. **Bukatu**: 00:28:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Komunioan marinel jantzi zen Elias. Bilbon hobeto bizi ziren senideak zituzten eta haiei esker edukitzen zuten arropa. Hala ere, ez zeukaten urik etxean eta arropok errekan garbitu behar izaten zituen amak.

45. Begoñan ezkondu eta bidaia Madrilera

- **Erref**: AMO-022/019
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:28:43. **Bukatu**: 00:30:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Eliasek lehenengo atera zuen argazkia ezkondu zenekoa da. Begoñan ezkondu ziren eurak, ordu batean. Gero, Madrilera joateko hegazkina hartzeko izan ziren, baina denboralea zegoen eta trenean joan behar izan zuten.

46. Umea egin ondoren, amari oilo-salda

- **Erref**: AMO-022/022
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:34:36. **Bukatu**: 00:36:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Umea jaio ostean, amari oilo-salda ematen zioten odola garbitzeko, eta gizonak oiloa jaten zuen. Andreak goseak hilik egoten ziren sarri. Eliasen etxean hamabi jaio ziren partera batekin, bertako etxeko Rosarekin.

47. Umeei aitabitxi-amabitxiek izena jarri

- **Erref**: AMO-022/024
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:37:28. **Bukatu**: 00:40:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Askotan umearen izena aitabitxik eta amabitxik aukeratzen zuten. Santuen izendegiari ere asko begiratzen zitzaion. Seme-alabei izen euskalduna jarri diete eurek, baina hasieran erdaraz jarri behar izan zieten.

48. Izena erdaraz jarri, baina euskaraz deitu

- **Erref**: AMO-022/025
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:40:48. **Bukatu**: 00:43:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Gerra aurrekoen izenak ere erdarazkoak ziren. Hala ere, batzuek izena erdaraz jartzen zuten, baina gero etxean-eta euskaraz deitu.

49. Udaletxeko erregistroan apuntatu barik ezkondu arte

- **Erref**: AMO-022/026
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:43:28. **Bukatu**: 00:44:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Mari Tere ezkondu arte erregistratu barik egon zen udaletxean; elizan, ostera, bai. Askori pasatu zitzaien hori Jose sekretario egon zenean.

50. Zornotzako gerra aurreko zinema

- **Erref**: AMO-022/027
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:44:38. **Bukatu**: 00:47:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Zornotzako zinema tren-geltokirako bidean zegoen. Gerra aurrean joan zen lehenengoz Elias zinera, "Cine Zelaieta" zeritzonera. Anaiak ordaindu zion sarrera, erreal bi.

51. Herrian alkateak, botikariak eta abadeak agintzen zuten

- **Erref**: AMO-022/028
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:47:25. **Bukatu**: 00:48:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa

Laburpena:
Zineman, filmearen beheko aldean markatzen zuen zein adinetakoentzat zen saioa. Arau horiek ondo betetzen zituzten orduan. Herrian alkateak, botikariak eta abadeak agintzen zuten.

52. Zaldarrak leherrarazi

- **Erref**: AMO-022/031
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:51:57. **Bukatu**: 00:54:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:
Zaldarrak leherrarazi behar izaten ziren eta barruko materia atera. Eliasi medikuak egin zion bisturiarekin. Zaldarrak txikiak zirenean jostorratzarekin ateratzen zituzten.

53. Asunekin egiten ziren erremedioak

- **Erref**: AMO-022/032
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:54:23. **Bukatu**: 00:57:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
Askok, gogo txarra kentzeko, asunekin jotzen zuten lepoa eta gero alkoholarekin edo binagrearekin igurtzi. Beste askok asun-infusioak hartzen zituzten tentsioa jaisteko, baita limoi ura edo sagarraren haziak ere.

54. "Mesias sarritan" kanta

- **Erref**: AMO-023/009
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:11:44. **Bukatu**: 00:13:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

Laburpena:
"Mesias sarritan" kanta abesten du.

55. "Ikusten duzu goizean" kanta moldatuta

- **Erref**: AMO-023/011
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:17:01. **Bukatu**: 00:18:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
"Ikusten duzu goizean" kantaren moldaketa abesten du.

56. Kurutzeta, aitak egindako etxea

- **Erref**: AMO-041/002
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:00:38. **Bukatu**: 00:02:23
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:
San Antonio auzoko Kurutzeta etxean jaio zen. Bere aitak egin zuen etxea eta 110 urte inguru izango dituela dio. "Forja Vizcaina" dagoen lekuan garai batean jauregi bat zegoen (Taubmann); ondoan administratzailearen txaleta zuen. Amak han lan egiten zuen, zerbitzatzen.

57. Elgezabal edo "Errekazabal" auzoa

- **Erref**: AMO-041/005
- **Iraupena**: 0:03:01. **Hasi**: 00:05:52. **Bukatu**: 00:08:53

- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:
Elgezabal auzoari "Errekazabal" deitu izan diote beraiek. Auzo horretakoa zen Eliasen aitita eta harenak ziren lur-sailetan lantegiak egin ziren gero. Garai baten soroak ziren lurretan gerora zer lantegi egon diren azaltzen dute.

58. Ibarrako errota I

- **Erref**: AMO-041/009
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:10:34. **Bukatu**: 00:11:22
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:
Amaren jaiotetxea zen Ibarra baserriaren atzean errota zegoen. San Antonio auzoan ez zegoen errotarik. Zentrala.

59. Ibarrako errota II

- **Erref**: AMO-041/011
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:11:56. **Bukatu**: 00:12:26
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:
Zornotzako lehenengo zentrala Ibarrakoa izan zen eta errota ere oso inportantea izan zen.

60. Amorebieta-Etxanoko errotak

- **Erref**: AMO-041/013
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:12:39. **Bukatu**: 00:13:14
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:
Amorebieta-Etxanoko errotak.

61. Ibarra inguruan desagertutako etxeak

- **Erref**: AMO-041/014
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:13:14. **Bukatu**: 00:14:31
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:
Ibarra auzoan eta inguruetan bota zituzten baserriak.

62. Eliasek inauguratu zuen Montorrako eskola 1928an

- **Erref**: AMO-041/015

- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:14:31. **Bukatu**: 00:16:44
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:
Montorra ingurua. San Lorentzo ermita. Eliasek dio beraiek inauguratu zutela Montorrako eskola 1928an. Aurretik baserrian lanean. Inguruko iturriak.

63. Amorebieta-Etxanoko toponimia

- **Erref**: AMO-041/017
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:16:51. **Bukatu**: 00:18:28
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:
Orain San Migelera arte ez dagoela iturririk diote. Mari Tereren baserri ondoko iturriak metal-ura. Beste iturri batzuk. Basoen izenak. Baserrien izenak. Keriketena baserria erre egin zen gerra sasoian.

64. Eskola eta erresidentzia Oruen

- **Erref**: AMO-041/019
- **Iraupena**: 0:04:41. **Hasi**: 00:19:48. **Bukatu**: 00:24:29
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:
Orue baserria erre egin zen gerra sasoian. Gerraostean pasiotarrek erosi zituzten inguruko lur-sailak eta eskola (gaur egin Lauaxeta ikastola dena) eta erresidentzia egin ziren bertan. Eskolaren bilakaera eta izan dituen izen ezberdinak.

65. Milaka pertsona hil ziren gerra sasoian San Martinen

- **Erref**: AMO-041/020
- **Iraupena**: 0:00:31. **Hasi**: 00:24:29. **Bukatu**: 00:25:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:
San Martin, "la cota 333, la cota de la muerte". Milaka pertsona hil ziren bertan gerra sasoian.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-19

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com